



## “Gaztelaniaz egiten duen jende horrek gaizki idatzitako latinez egiten du, agian?”

Huan Porrah | Euskandaluza

Haizeak bidali zuen handikan honuntza.

ARITZ GALARRAGA  
Argazkia: Huan Porrah-k utzia

### Geroztik hemen dabil gure andaluza?

Ez, itzuli nintzan nere herrira, Andaluziara, tesia bukatu ondoren, 2004an. Guztira hamar bat urte izan dira euskaldunon artian, “hormak botatzen”.

### Vocentokoen arabera Euskal Herriatik exiliatu diren milaka eta milaka eta milaka horietako bat zaitugu, beraz.

Ez da izango nere kasua, ni andaluza naiz hasieratikan eta erdi-euskaldun bihurtu nintzan zuen artian.

### Hemen izandako garaian punk mugimendua aztertu zenuen. Eta ez trikitixa.

Baita ere, baina jaietako giroan nagusiki, azterketa ez-ofizial batian. Hala ere, nere lagun Tapiaren fusio lana aipatzen det euskal punkien inguruko azterketan.

### Punka unibertsitatean sartu zenuen zuk!

Nik ustet, hobe esanda, punka atzekaldeko atetik sartu geniola unibertsitateari.

### Basagoitz gain, geratzen al da gaur euskal punkirik?

Izen horrekin eta beste batzuekin, Euskal Herrian oraindik punkiak sortzeko aitzaki mordu geratuko dira urte askotako.

### Jarraitzen duzue andaluzieraz idazteko arauak sortzen edo etsi duzue dagoeneko?

Hortan ari gea, aurrerapausoak ematen instituzioetatik kanpo, lan gogor eta finko batekin. Herri andaluzak esango digu ze

erritmo jarraitu. Azaruan eukiko deu gure *Vª Hunta d'ebkritoireb en andalú*, Graná aldian... eta pozik.

### Jende askok pentsatuko du gaizki idatzitako gaztelania proposatzen duzuela.

Gure ahozko kultura andaluzan ikuspuntu-tikan, gaztelaniaz egiten duen jende horrek gaizki idatzitako latinez egiten du, agian?

### Huan Porrah bada andaluzieraz Juan Porras, nola geratuko litzateke Aritz Galarraga?

Aritz Galarraga ez da izen andaluza, ezta Jon Borrak euskalduna ere.

### Aizu, Hernanin Animaliya ezizenez ezagutzen zaituzte oraindik.

Andalúerazko *Animá* nere ezizen punkitikan dator. Ekologista naizelako izango da, ezta?

### Inoiz “Huan Porrah, andalofiloa” irakurri izan dut eta ezizena hortik zetorrela uste nuen...

Kar kar! Nahiko animaliya bagera, bai, andalofiloon artian.

### Bada, gauza dezente egiten duzu zuk. Lanik egin gabe, egun osoa txisteak kontatzen imajinatzen zintudan!

Bueno, iada pasatzen ari zea *kaxondeito*-arekin! Eta andaluzoi estereotipo kutre asko kokatzen badizkigute, ze esango zenuke euskaldunei dagokizuenaz? Agur bero eta txeratsu bat Euskal Herriko nire lagun guztioi eta ARGIA-ko irakurleei. *¡Zalú i ar kudio!* ■